

Hibrido sortzaileak

Berritzeko konexioak lortu

Híbridos creativos

Cómo cazar conexiones para innovar

Muturreko espezializaziotik hibridaziora. Proiektu bat guztiz ezberdinak diren ikuspegietatik hartzean berezitu eta aberastu egiten da eta berritzailea izan dadin aukerak biderkatu egiten dira. Errealitate ezberdinen artean lotura ezartzeko, itxuraz elkarbiderik ez dagoen gauzetan loturak ikusteko, gure pentsaera aldatu beharra dago. Egilearen arabera “urrun bilatzen” ikas daiteke.

De la especialización extrema a la hibridación. Enfocar un proyecto desde perspectivas completamente diferentes lo singulariza, enriquece y multiplica las posibilidades de que sea innovador. Establecer conexiones entre distintas realidades, ver nexos donde aparentemente no hay nada en común, exige un cambio en nuestra forma de pensar. Según el autor “buscar lejos” es algo que se puede aprender.

 Michelle Brea



Amalio A. Rey

eMOTools-eko zuzendaria
Director de eMOTools

info@emotools.com
www.emotools.com

Hibridazioa: zertaz hitz egiten ari gara?


“Hibridazioa” jakintzaren hainbat sektore, merkatu eta arlotan berritzeko dagoen beharrizan gero eta handiagoarekin lotua dago. Azken batez, konponbide berriak lortzeko gauzak nahasteko joera gero eta argiagoa da.

Orain arte gehienbat diziplina edo merkatu berean produktu eta zerbitzu berriak sortzeaz konformatu gara. Noranzko bakarreko estilo hau agortzen hasia da eta bide berriak zabaltzen dira eklektikoan, nahastean oinarrituta, “garbi”tik ihes egin eta lehen isolatuta zeuden piezekin bat eginez. Labur esanda, “diziplina anitzeko berrikuntza” nagusitzen ari da.

Hibridación ¿de qué hablamos?

La “Hibridación” tiene que ver con la creciente necesidad de innovar en la intersección de distintos sectores, mercados y áreas del conocimiento. En definitiva, la tendencia cada vez más acusada de mezclar cosas para generar nuevas soluciones.

Hasta ahora nos hemos conformado mayoritariamente con generar nuevos productos y servicios dentro de una misma disciplina o mercado. Ese estilo unidireccional empieza a agotarse, y se abren nuevos cauces que se basan en lo ecléctico, en la mezcla, en huir de lo puro y en conectar piezas antes aisladas. En resumen, se impone la “innovación multidisciplinar”.



Zergatik orain?

Gezurra esango nuke esango banu hibridazioa edo diziplina anitzeko berrikuntza gauza guztiz berria dela. Historian horrelakoak izan diren berrikuntzen adibide asko daude; hala ere, ez da inoiz egon orain bezala fenomeno hori biderkatzeko hainbeste baldintza batera.

Gaur egun hibridazioa askoz errazagoa eta ekonomikoki hitz eginez bideragarriagoa izan dadin lau fenomeno gertatzen ari dira, gu horien lekuko garela:

- Gero eta diziplina anitzekoagoa den zientziaren konbergentzia handia.
- Iraultza digitala, "atomoak bit bihurtuz" lehen kode ezberdinetan adierazten ziren jakintza eta zerbitzuak hizkera komunean (digitala) adieraztea lortzen duena.
- Emigrazioa, pertsonak nahastuz gero eta globalagoa den munduan bizipen heterogeneoak konpartitzera behartzen duena.
- Informazioa bilatzen eta iragazten duten tresnen agerpen eta sendotzea (Google bezalako bilatzaileak), bilatzeko eta nahasteko lana askoz arinagoa izan dadin aukera emanez.

Lau elementuok hibridatzeko inoiz baino aukera gehiago sortzen ari dira eta aprobetxatzen ez dakitenak abangoardiako bagoitik eroriko dira berrikuntzaren gaian.

Zeintzuk dira "hibridatzea"ren abantailak?

Frans Johansson-ek "Medici efektua" deitzen dio niretzat berrikuntzaren lege edo teorema bihurtu denari. Harvardeko Eskolako suediar autore honek gutxi gorabehera zera dio: "konbinatzen diren alderdiak zenbat eta desberdinagoak izan berritzeko aukera gehiago egongo da". Oso sinplea da, teoria onak bezala.

Labur esanda, geografiari bat beste geografiari batekin nahasten baduzu berrikuntza proiektu batean, lortu ahalko duen bakarra diziplina baten barruan ezaguerak "batzea" izango da. Baina geografiari bat ekonomialari edo informatikari batekin lanean jartzen baduzu, "batu" baino gehiago baterako lan horretatik zerbait berritzaile atera dadin aukerak biderkatzen ari zara.

Beraz, errazagoa da berritzea (hau da, bezeroarentzat berria den zerbait lortu) zenbait diziplina (edo merkatu) gurutzatuz -espazioak birjinago daude- espezializazio eremu bakar batean arakatzen mugatuz baino, segur aski hor lehiakide gehiago eta aitzindariak izateko marjina txikiagoa izango dugulako.

¿Por qué ahora?

Mentiría si dijera que la hibridación o la innovación multidisciplinar es un hecho totalmente nuevo. La historia registra numerosos ejemplos de innovaciones que han sido de esa naturaleza, sin embargo, nunca se han reunido tantas condiciones juntas para que este fenómeno se multiplique como está ocurriendo ahora.

En la actualidad estamos siendo testigos de cuatro fenómenos que están haciendo la hibridación mucho más fácil y viable económicamente hablando, a saber:

- La fuerte convergencia de la ciencia, que es cada vez más multidisciplinar.
- La revolución digital que, "convirtiendo átomos en bits", consigue llevar a un lenguaje común (el digital) conocimientos y servicios que antes se expresaban en códigos distintos.
- La emigración, que está mezclando a las personas, y obliga a compartir vivencias heterogéneas en un mundo cada vez más global.
- La emergencia y consolidación de herramientas que buscan y filtran la información (buscadores como Google) permitiendo así que la tarea de buscar-y-mezclar sea mucho más ágil.

Estos cuatro elementos están generando más oportunidades de hibridar que nunca, y aquellos que no sean capaces de aprovecharlos estarán descolgándose del vagón de vanguardia en materia de innovación.

¿Qué ventajas tiene "hibridar"?

Frans Johansson llama "Efecto Medici" a lo que para mí se ha convertido en un teorema o ley de la innovación. Lo que este autor sueco de la Escuela de Harvard viene a decir es que: "mientras más diferentes sean las partes que se combinen, más oportunidades de innovación habrán". Así de sencillo, como las buenas teorías.

Simplificando, si usted mezcla a un geógrafo con otro geógrafo en un proyecto de innovación, lo más que podrá conseguir es "sumar" conocimientos dentro de una misma disciplina. Pero si usted pone a trabajar a un geógrafo con un economista o un informático, más que "sumar", lo que está haciendo es multiplicar las probabilidades de que de ese trabajo conjunto salga algo novedoso.

En resumen, es más fácil innovar (es decir, conseguir algo esencialmente nuevo para el cliente) en la intersección de distintas disciplinas (o mercados), donde los espacios están más vírgenes, que limitarse a hurgar dentro de un único ámbito de especialización, en el que con toda seguridad nos encontraremos más competidores y menos margen para ser pioneros.

Dibertsitatea elementu kritikoa da diziplina anitzeko berrikuntzarako

Adibide iradokitzaileak

Aspaldixotik biltzen ari naiz hibridazioaren adibideak eta nire bilduma izugarri hazten hasi da. Ehunka adibide eman nezake erakusteko diziplina anitzeko hibridazioa produktu eta zerbitzu berritzaileak garatzeko bide ezin hobea bihurtzen ari dela erakusteko.

Laburra izateko, jarraian errealitatean dauden aukera izugarriak ulertzeko baliagarriak diren batzuk aipatuko ditut:

- Ekonomialariak eta biologoak elkarrekin lanean aritzen dira alor batetik bestera azalpenak eramateko (Antolakunden Ekologia)
- Biologo eta ingeniariak elkarrekin lan egiten dute Biomimetikaren esparruan naturan oinarritutako diseinuaren konponbide ebolutiboak lortzeko (adibidez, kontsumo gutxiko eraikinen diseinua termiteen hozte naturalean inspiratuta).
- Biomazaz elikatzen diren errotoak agertzen dira ("Ekobota")
- Softwarearen garapenean adituek ingurumen zientzietako espezialistekin eta biologo molekularrekin batera lan egiten dute enviromatics edp ingurumeneko informatika konponbideak diseinatzen.

Zer egin behar da gehiago hibridatzeko?

Azpimarratu nahi nuke hibridatzaile on batek garatu behar duen gaitasun edo trebetasun nagusia itxuraz loturarik ez duten elementuen artean "konexioak harrapatzen" ikastea dela. Sektore, jakintzaren alor, merkatu eta pertsonen artean ezkutuko loturak ikusteko gaitasunak desberdintzen ditu hibridatzen duen berritzailea eta hibridaziorik erabiltzen ez duena.

Neure esperientziarengatik badakit piezak eraginkortasun handiagoarekin piezak lotzeko trebetasuna eskuratu egin daitekeela. Trebatu handiarekin jarraitu behar duen hasierako ikastearekin garatzen da.

Lehenengo eta behin, "urrun bilatzen ohitu beharra dago", hau da, agerian dagoenarekin, erlazio ikusgarri eta erosoekin ez konformatzen ohitu behar dugu. Pentsatzeko ereduetan bilatzeko bide ausazkoagoak sartu behar dira, soilik logika inertzialetara daramaten arrazoinamendu automatikoetatik ihes egiteko. Horrek esan nahi du fokoa selektiboki ireki behar dela eta maiz konponbideak lortzeko sorkuntza-eraketak egin behar direla honelako galderak eginez: "zergatik ez?".

Hau da, lehen loturarik ez zuten piezak konbinatzeko gaitasunak jokabideak aldatu beharra du, zaharkiturik dauden hesi asko eraitsi behar direlako (diziplina, kultura, lanbide eta abarren artean), eta hein handi batean merkatu eta jakintzaren eremuan dagoen gehiegizko espezializazioarengatik sortu dira.

Halaber, guztiz beharrezkoa da berrikuntza proiektuak eta jakintza kudeatzeko ekimenak talde heterogeneoz hornitzea, hainbat diziplina, kultura, adin, etab.eko pertsonen osatuak.

Ejemplos que inspiran

Hace tiempo que me dedico a coleccionar ejemplos de hibridación, y mi inventario empieza a crecer de forma abrumadora. Podría aportar cientos de ejemplos que demuestran cómo la innovación multidisciplinar se convierte, de manera creciente, en una formidable vía para desarrollar productos y servicios innovadores.

Por ser breve, cito a continuación algunos que sirven para comprender las enormes oportunidades que existen en la realidad:

- Economistas y biólogos trabajan juntos para trasladar explicaciones de un ámbito al otro (Ecología de las Organizaciones)
- Biólogos e ingenieros trabajan en el ámbito de la Biomimética para encontrar soluciones evolutivas de diseño inspiradas en la naturaleza (por ejemplo, el diseño de edificios de bajo consumo inspirado en la refrigeración natural de las termitas)
- Aparecen robots que se alimentan de biomasa (el "Ecobot")
- Expertos en desarrollo de software trabajan con especialistas en ciencias ambientales y biólogos moleculares para diseñar soluciones de enviromatics o informática medioambiental.

¿Cómo ser más hibridadores?

Me gustaría insistir que la principal aptitud o habilidad que debe desarrollar un buen hibridador es la de aprender a "cazar conexiones" entre elementos aparentemente inconexos. Esa habilidad de "ver" conexiones ocultas entre sectores, áreas de conocimiento, mercados y personas es lo que hace diferente a un innovador que hibrida del que no sabe hacerlo.

Por experiencia propia, sé que la capacidad de conectar piezas de un modo más eficaz y eficiente se puede adquirir. Se desarrolla con un aprendizaje inicial seguido de mucho entrenamiento.

En primer lugar, hay que acostumbrarse a "buscar lejos", es decir, a no conformarse con lo obvio, con las relaciones más visibles y cómodas. Se deben introducir en los patrones de pensamiento caminos más aleatorios de búsqueda, que permitan huir de los razonamientos automáticos que sólo conducen a lógicas inerciales. Esto implica abrir selectivamente el foco y también realizar a menudo ejercicios creativos de búsqueda de soluciones siguiendo pautas del tipo: "¿qué pasaría si?" o su equivalente "¿por qué no?".

Es decir, la capacidad de combinar piezas antes inconexas necesita de un claro reformato de actitudes, pues necesita echar abajo muchas barreras obsoletas (entre disciplinas, culturas, profesiones, etc.) que en gran medida se han instalado gracias a la excesiva especialización que impera en el ámbito del mercado y del conocimiento.

Asimismo, es absolutamente esencial que los proyectos de innovación, y las iniciativas de gestión del conocimiento, se doten de equipos heterogéneos, formados por personas de distintas disciplinas, culturas, edades, etc.

La diversidad es un elemento crítico para la innovación multidisciplinar.